

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 143/2023 Foru Agindua, martxoaren 2koa Onespena ematea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Eta Ondarearen gaineko Zergaren 2022ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko arauari eta modalitateei

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 102.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, "autolikidazio ereduak eta autolikidaziorako modalitate erraztuak edo bereziak erabiltzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko du. Foru diputatu horrek berak zehaztuko du autolikidazioa nola eta noiz aurkeztu behar den, bai eta autolikidazioak baliabide telematikoen bidez nolako kasuetan eta nola aurkez daitezkeen ere"

Bestalde, Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauak 36. artikuluan bat apartatua ezartzen duenez, zergadunek zerga horren autolikidazioa aurkeztu behar dute eta behar den kasuetan zerga zorra ordaindu behar dute, eta aurkezpena eta ordainketa non, nola eta noiz egin behar diren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du.

Aurki hasiko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Eta Ondarearen gaineko Zergaren 2022ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko epea.

Hori dela eta, besteak beste, aitortpen modalitateak eta aitortpenak aurkezteko epea arautu behar dira.

Xedapen hau da tresnarik egokiena helburu horiek lortzeko. Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen honekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru agindu hau izapidetzean gardentasun printzipioari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluan 3. apartatua xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Aztertu dira Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horri buruzko egindako txostena eta arau inpartatuaren txosten laburra.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpen modalitateak

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak hurrengo sistema hauen bidez aurkez daitezke:

A) "rentafácil."

1. Arabako Foru Aldundiak zenbait zergaduni kalkulatzeko dizkien autolikidazio proposamenak dira. Autolikidazioaren balio juridikoa izango dute, zergadunak proposamen horrekin ados dagoela adierazten duen unean. Zergadunak ados dagoela adierazi eta gero, itzulketa egingo da edo, hala badagokio, ateratzen den kuota helbideratuko da.

2. Autolikidazio proposamenak kalkulatzeko zaizkien zergadunek beraiek aldatu ahal izango dituzte, proposamenetan honako hauek sartzeko:

a) Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikulua 1. apartatua aipatzen direnak (hemendik aurrera PFEZari buruzko 33/2013 FA).

b) Ohiko etxebizitzaren alokairuaren kenkaria, PFEZari buruzko 33/2013 FAren 86. artikuluan jasorikoa.

c) Kreditu erakundeetan ohiko etxebizitza eskuratzeko gordailututako zenbatekoen kenkaria, PFEZari buruzko 33/2013 FAren 87.5 artikuluan jasorikoa.

d) Hauexen kenkariak: opariak, dohaintzak, ekarpen ezeztazekin, huts eta sinpleak, doako aldi baterako lagapenak eta irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoaren zerga pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Arauari atxikitako erakundeen alde egindako doako zerbitzu prestazioak.

Aldaketa horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa egin behar dira, www.araba.eus web orrian. Horretarako, baliozkoak izango dira IZENPEk emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikoa horretan balioko den beste edozein ziurtagiri digital ere.

Zergadunak aldaketa horiek egin dituela eta aldatutako proposamena onartu duela egiaztatzen den unean, proposamen horrek autolikidazioaren balio juridikoa izango du, eta dagokion kuota itzuli edo, hala badagokio, helbideratuko da.

3. Zergadunak, horretarako emandako epearen barruan, ez badu adierazten jasotako proposamenarekin ados dagoela, edo ez badu 2. apartatua adierazitako moduan aldatzen, administrazio jarduna egin gabekotzat emango da eta zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzea aurkeztu beharko du, horretara beharturik badago, gainerako sistemetako baten bitartez.

B) "rentared."

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzea egiteko Arabako Foru Aldundiak prestatutako laguntza programa erabiliz zergadunak egindako aitortpenak dira. Aitortpen horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez (www.araba.eus) bidaltzen dira.

Aitortpenak bidaltzeko, baliozkoak izango dira IZENPEk emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikoa horretan balioko den beste edozein ziurtagiri digital ere.

C) "rent@raba."

1. "rent@raba" Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak egiteko zerbitzu bat da, zeina Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoen bidez ematen baitaie zenbait baldintza betetzen dituzten zergadunei.

Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulegoek ere sistema honen bidez aurkez ditzakete zergadunen aitortpenak.

2. Zerbitzu hau doan emango zaie, Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun guztiei, salbu eta honako hauei:

a) 2022ko ekitaldian jarduera ekonomikoren batean aritzen direnei edo jarduera ekonomikoren bat garatzen duten eta errentak eratxikitze araubideren batera bilduta dauden entitateetako bazkideei, oinordekoei edo partaideei.

b) 2022ko ekitaldian ohiko etxebizitza eskualdatu dutenei.

c) 2022ko ekitaldian balio higigarrien edo higiezin salmentako hiru eragiketa baino gehiago egin dituztenei.

d) 2022ko ekitaldian balore merkatu arauturen batean negoziatzeko onartu ez diren merkataritza sozietateen akzioak edo partaidetzak eskualdatu dituztenei.

e) Lekualdatutako langileentzako eta PFEZaren 33/2013 FAren 56 bis artikuluan araututako araubide bereziaren arabera zergak ordaintzea erabakitzen dutenei.

Bi. Ondarearen gaineko Zerga.

Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenak bide telematikoen bidez aurkeztu behar dira. Zergadunek eta Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulegoek egingo dituzte aitortpenak, Arabako Foru Aldundiak prestaturiko Ondarearen gaineko Zergaren laguntza programa erabiliz, eta egoitza elektronikoaren (www.araba.eus) bidez bidaliko dituzte.

Aitortpenak bidaltzeko, baliozkoak izango dira IZENPEK emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikorako horretan baliozkoa den beste edozein ziurtagiri digital ere.

Hiru. Baldin eta Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze eta aholkularitza bulego baten bidez aurkezten bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena rent@raba modalitatean edo Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena, borondatezko ordezkariaren Bi a) azpimaila eman behar da, bat etorritik apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuan xedatutakoarekin. Dekretu horrek Arabako Foru Ogasunaren aurrean, zergen arloan, zenbait izapide eta jarduerak egiteko emandako borondatezko ordezkariaren arautzen du eta borondatezko ordezkariaren erregistroa sortzen du.

Era berean, ordezkariaren azpimaila hori eman behar da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, borondatezko ordezkari baten bidez, "rentafácil" modalitateko autolikidazio proposamenak onartzeko eta aldatzeko (artikulu honen bat apartatuko A) letraren 2. apartatuan ezarri bezala), eta "rentared" modalitateko autolikidazioak aurkezteko.

2. artikulua. Laguntza programen banaketa

Laguntza programak www.araba.eus helbidean deskarga daitezke.

3. artikulua. Frogagiriak

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenekin batera, zergadunen zerga datuetan jaso gabe dauden edo jasota daudenetik ezberdinak diren frogagiri aplikagarriak aurkeztu behar dira, aitortpenean agertu behar diren mota guztietako eragiketa, errenta, gastu, diru sarrera, murrizketa eta kenkariaren arabera.

Aitortpenen erantsitako frogagiriak telematikoki aurkeztu behar dira aitortpenekin batera.

4. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren 2022ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko epea

Hona hemen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren 2022ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko epeak:

1. "rentafácil:"

Zergadunei igorritako aitortpen proposamenen baieztapenak, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, bai eta foru agindu honen 1.bat artikuluan A) letraren 2. apartatuan aipatzen diren horien aldaketak ere, 2023ko apirilaren 3tik ekainaren 18ra egin ahalko dira.

Proposamen horien baieztapenak, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik kanpo, 2023ko apirilaren 19tik ekainaren 18ra egin ahalko dira.

Era berean, proposamen horien aldaketak Foru Ogasunaren bulegoetan ere egin ahal izango dira, 2023ko apirilaren 19tik ekainaren 26ra, baldin eta zergaduna ez badago foru agindu honen 1.bat artikulua (C) letraren 2. apartatua jasotako bazterte kasuetakoren batean.

2. "rent@raba:"

– Hasiera data:

a) Foru Ogasunaren bulegoetan: 2023ko apirilaren 19a.

b) Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako kudeatze edo aholkularitza bulegoen bidez: 2023ko apirilaren 3a.

– Amaiera data: 2023ko ekainaren 26a.

3. "rentared:"

– Hasiera data: 2023ko apirilaren 3a.

– Amaiera data: 2023ko ekainaren 26a.

4. Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenak:

– Hasiera data: 2023ko apirilaren 3a.

– Amaiera data: 2023ko ekainaren 26a.

5. artikulua. Ordainketa

Bat. Oro har, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Eta Ondarearen gaineko

Zergaren autolikidazioen ondoriozko zenbatekoa osorik ordaindu beharko da 2023ko ekainaren 26ra arte.

Hala ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak 71.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zerga horren autolikidazioaren zenbatekoa bi zatitan ordain daiteke, inolako interesik eta errekar gurik gabe:

a) Lehenengoa, zenbatekoaren ehuneko 60koa, 2023ko ekainaren 26ra arte ordaindu ahalko da.

b) Bigarrena, gainerako ehuneko 40koa, 2023ko azaroaren 10era arte ordaindu ahal izango da.

c) Zatikapen hori ez zaie aplikatuko foru agindu honen 4. artikuluan ezarritako epetik kanpo aurkeztutako autolikidazioei, ez eta autolikidazio osagarriei ere.

d) Lehenengo zatia apartatu honen a) letran ezarritako epe barruan ez ordaintzeak berekin ekarriko du zor guztia betearazpen bidean kobratzea, bat etorriz Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 165.1 b) eta 165.3 artikuluetan xedatutakoarekin.

Bi. Oro har, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenak aurkezteak berekin dakar kuotak helbideratzea zergadunek beren aitortpenetan adierazitako kontuetan.

Edonola ere, ordainketa pasabidearen edo ordainketa gutunaren bidez ordaindu ahalko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotaren lehen zatia (artikulu honetako bat apartatua aipatzen den zatikapena aukeratuz gero) edo kuota osoa (zatikapena aukeratu ezean) rentaraba eta rentared modalitateetan, baita Ondarearen gaineko Zergaren kuota ere.

2023ko ekainaren 19tik aurrera, Ondarearen gaineko Zergaren kuota ezin izango da helbideratu, ezta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotaren lehen epea (zatikapena aukeratuz gero) edo kuota osoa ere (zatikapena aukeratu ezean), eta ordainketa ordainketa pasabidearen edo ordainketa gutunaren bidez egin beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honetako xedapenak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta 2022ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenei aplikatuko zaizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 2a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA